



## ■ enirio aralarko mankomunitatea

### SARNA BILERA 2024/11/12

Zaldibiako Goizane zentroan egindako bileran egon ziren Enirio-Aralar Mankomunitateko txabola esleipendun artzainak, Mankomunitateko langilea den Jose Antonio Irastorza, Mankomunitateko ordezkari den Mikel Arteaga, Mankomunitateak kontratatutako Karlos Birto albaitaria eta Gipuzkoako Foru Aldundiko nekazaritza saileko Mikel Azpiri eta Iñigo Agirre. Bertan honakoak hitz egin ziren:

- 2024an egin den sarnaren aurkako kanpainaren ondoren, egoera asko hobetu dela adierazi dute artzainek. Hala ere, gaixotasuna guztiz desagertu ez izanaren kezka dute hainbatek eta honen aurka lanean jarraitzeko beharra adierazi dute.
- Artzain batzuk zalantzan jarri zuten denek agindutako tratamendua egin izana. Mankomunitateko ordezkariak argitzen du tratamendua egin nahi ez zuten bi kasuren berri izan zutela. Plana diseinatzerako orduan artzainek eta Mankomunitateak adostu bezala, tratamendua egin ezean artaldea menditik jaitsi beharko zutela adierazi zitzairen, eta jarraian, tratamendua egin izanaren agiriak aurkeztu zituzten. Beraz, planean adostu bezala, medikamentuak erosi izanaren agiriak artzain guztiek aurkeztu zituzten. Etorkizunera begira, mendira igo aurretik artaldea sarnarik gabe edukitzea adierazten zuen albaitari baten ziurtagiria eskatzea Mankomunitateko ordenantzetan txertatzeko beharra adierazten da.
- 2024an mendiko denboraldia hasi baino denbora gutxi lehenago izan zuten Mankomunitateko ordezkariak egoeraren larritasunaren berri. 2025era begira, jarraitu beharreko pausoak denbora gehiagorekin antolatzeke, Karlos Birto albaitariak berriro bisitatuko ditu ustialeku guztiak, eta hauen egoera aztertu ondoren, jarraitu beharreko pautak emango ditu.
- Amaitzeko, gaixotasunaren kontrola hobetzeko asmoarekin, garrantzitsua ikusten da mankomunitateko lurrekin muga egiten duten administrazioekin (Abaltzisketako Udala, Amezketako Udala, Ataungo Udala, Zaldibiako Udala eta Nafarroako gobernua) koordinazioa areagotzea.

LEHENDAKARIAK